



EMAKUNDE

Emakumearen euskal erakundea

Euskararen Erabilera

Normalizatzeko Plana 2024-2027



AURKIBIDEA

1.	SARRERA	4
1.1.	Marko juridikoa	4
2.	PLANAREN OINARRIAK ETA BALIABIDEAK	8
2.1	Plangintzaldi berriaren gidalerroak	8
2.2	Planaren metodologia, egiturak eta urratsak	10
3.	DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA	13
3.2.	Erabilera	14
3.3.	Hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak eta betetze-maila.....	15
3.4.	Euskarazko atalak	16
4.	DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA	18
4.1.	Kudeaketa	18
4.2.	Erabilera	20
5.	EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA	24
5.1.	Planaren erronkak eta helburu estrategikoak	24
6.	2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOA	26
7.	KUDEAKETA-PLANAK, JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA	29
8.	HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK	31
a.	Euskararen kudeaketa orokorra	31
b.	Lidergoa	32
c.	Hizkuntza-klausulak.....	32
d.	Irudia	eskaki34

e.	Herritarrekiko harremanak.....	34
f.	Kanpo-harremanak.....	36
9.	PLANAREN KOMUNIKAZIOA.....	37
10.	ERANSKINAK	38

1. SARRERA

Euskara EMAKUNDEren elementu giltzarria da, elementu bereizgarria, balio erantsia ematen diona. Horretarako, EMAKUNDEk ibilbide luzea egin du euskararen normalizazioan, eta, mugari garrantzitsuak jarri ditu bide horretan. Izan ere, 2014an Euskararen Erabilera Normalizatzeko lehen plana onartu zuenetik lan handia egin da euskara normalizatzeko, eta horren ondorioz, gaur egun euskararen normalizazioa erakundearen lan-ildo estrategikoetako bat da.

Gizartea aldatuz joan den moduan, euskararen beharrak ere aldatu egin dira, eta behar horietara egokitzeko EMAKUNDEk eta urrats nabarmenak eman ditu, betiere hizkuntza-lidergoan oinarrituta: hizkuntza-irizpide propioak landu, euskara ikasteko baliabideak eskaini, euskaraz sortzeko protokoloa egin, herritarren harrera-protokoloa aplikatu, Euskara Planaren segimendurako egiturak sortu, Bikain ziurtagiria eskuratu, Eusle metodologia abian jarri, langile berrientzako harrera-protokoloan euskararen aldagaia txertatu, Euskaraldian parte hartu; eta dena kudeaketa aurreratuaren ikuspegiarekin.

Urte horietan zehar, euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko, politika planifikatuak diseinatu eta garatu ditu EMAKUNDEk. Plangintzaldikako Euskararen Plan Estrategikoak landu eta, urtero, euskararen kudeaketa-planak inplementatu ditu. Azken Euskararen Plan Estrategikoaren indarraldia 2018-2022koa izan zen eta bertan zehaztutako anbizioa proiektuaren garapen osoan hartu zen aintzat:

Horrela, azken Plan Estrategikoan (2018-2022) jasotako helburu orokor hauen norabidean egin zen lan:

- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea Eusko Jaurlaritzarekiko eta erakunde autonomiadunekiko harremanetan, bereziki zuzeneko arretako eta jendaurreko zerbitzuetan.
- Euskara lan hizkuntza izateko aurrera pausuak ematea, euskaraz gero eta gehiago sortuz.
- Herri administrazioen harremanetan euskara gehiago erabiltzea.
- Erakunde-ordezkarien lidergoa indartzea euskararen normalizazio prozesua erakunde bakoitzaren ohiko jardunean txertatzeko.

Eta horiek lortzeko era guztietako baliabideak jarri zituen erakundeak: teknikoak, ekonomikoak, zein pertsonalak.

VI. Plangintzaldia amaituta, EMAKUNDEk euskararen erabilera normalizatzeko 2024-2027 plana lantzeko prozesua abiatu zuen 2023an, eta hura burutu da 2024an.

1.1. Marko juridikoa

1.1.1. Euskararen legea

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak euskararen erabilera soziala sustatzeko politika arautu zuen, Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen bitartez. Lege horretan xedatzen da herritar guztiek eskubidea dutela herri-administrazioarekin dauzkaten harremanak nahi duten hizkuntza ofizialean burutzeko. Horretarako, herri-aginteen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatzeko. Ondorioz, legea-

ren hastapen edo oinarririk funtsezkoena honako hau da: hizkuntza-eskubideak herritarrenak dira, eta Administrazioari dagokio eskubide horiek betetzea eta betetzen direla bermatzea.

1.1.2. 19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeakoa

Geroago Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak elementu berriak erantsi zituzkion 6/1989 Legeari, eta honako hauek arautu zituen, besteak beste: bete beharreko gutxieneko baldintzak, plangintzaldiak eta epeak, bost urtaldirako planak egitea...

Horrela, 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zuten euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak ezarri zituen; hau da, normalizaziorako helburuak betetzeko hizkuntza-politika eta horren jarraibide nagusiak ezarri zituen, besteak beste lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak ezartzea.

Bestalde, 2024an onartu den 19/2024 dekretuak, aldiz, zenbait berrikuntza ekarri dizkio normalizazio-prozesuari; nagusiki eta gai orokor batzuk aipatuta:

Egokitzapen-aldiei dagokienez, plangintzaldiak izango dira kontuan. Hala, sektore publikoko erakundeek datozen bi plangintzaldiak, zazpigarrena eta zortzigarrena, izango dituzte egokitzeko. Hala, zazpigarren eta zortzigarren plangintzaldietarako aurreikusitako datak 2023ko urtarrilaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra eta 2028ko urtarrilaren 1etik 2032ko abenduaren 31ra dira, hurrenez hurren.

Emakunde bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren aplikazio-eremuan dauden entitateek, aldiz, urtebete izango dute dekretu honetan ezarritakoari egokitzeko, dekretua indarrean jartzen denetik zenbatuta.

Aplikazio-eremua:

Dekretu hau euskal sektore publikoko entitateei aplikatuko zaie, egoitza eta bulegoak Euskal Autonomia Erkidegoan izan edo ez, hargatik eragotzi gabe kokatuta dauden lurraldeetako hizkuntza ofizialen erabilera

Hizkuntza-plangintzan, euskal sektore publikoko erakunde bakoitzak honako hauek egin eta onartu beharko ditu:

- a) Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.
- b) Plan estrategikoak.
- c) Kudeaketa-planak.

Kontratazio Publikoei dagokienez:

- Euskal sektore publikoko entitateek egindako kontratazio publikoetako prozedurak gauzatzen direnean herritarren hizkuntza-eskubideei eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeari dagokienez trabarik gerta ez dadin, kasu

bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dituzte kontratazio-organoek, baita, hala badagokio, behar diren baliabide ekonomikoak ere, betiere baldintza hauek betez:

Plan Estrategikoa:

Dekretuaren arabera, PLAN ESTRATEGIKOAK finkatu behar ditu plangintzaldi bakoitzerako lortu nahi diren helburuak, hartu behar diren neurriak eta jarri behar diren bideak erakunde batean euskararen erabilera ere zerbitzu-hizkuntza gisa bermatzeko eta lan-hizkuntza gisa areagotzeko eta normalizatzeko, betiere hasierako egoeraren diagnostiko kuantitatibo zein kualitatibotik abiatuta.

Nolanahi ere, plan estrategikoan erakundearen plantillaren egoeraren azterketa eta hizkuntza-eskakizunen eta horien derrigortasun-daten xehetasunak jaso beharko dira.

Plan estrategikoa plangintzaldi bakoitzaren lehenengo urtean landu eta onartu beharko da, bere barne-antolamenduko arauetara jarraituz. Onartu ondoren, erakundearen web atarian argitaratu beharko da.

Plangintzaldi bakoitzean gutxienez bi kudeaketa-plan egin behar dira eta haren egiturak bat etorri behar du plan estrategikoaren egiturarekin. Kudeaketa-plan horietan, plan estrategikoan jasotako helburuak lortzeko proposatzen diren ekintza zehatzak azalduko dira, bai eta ekintzon erantzuleak, epeak eta segimendua egiteko epemugak ere.

Kudeaketa-plan bakoitza onartu aurretik, organo eskudunak aurreko kudeaketa-planaren betetze-maila ebaluatuko du.

Ebaluazioa eta jarraipenaz hau jasotzen du:

- Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak bere plan estrategikoan erabilitako adierazleen jarraipen sistematikoa egingo du. Aginte-taulako adierazleei dagokienez, entitate bakoitzak haien aldizkako ebaluazioa egin beharko du.
- Plangintzaldiaren bi unetan, gutxienez ere –plangintzaldiaren erdialdean eta amaieran–, entitateek barne-ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa egingo dute, entitatearen web atarian argitaratu beharko dena. Plangintzaldi bakoitzaren amaierako ebaluazioaren datuak hurrengo plangintzaldiko plan estrategikoa lantzeko behar den hasierako diagnostikorako oinarria izango dira.
- Ebaluazio horiek egiteko, euskal sektore publikoko entitateek erabili ahal izango dute Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikan eskumena duen organoak haien eskura jarritako metodologia estatistikoa.

Hizkuntza-eskakizunen alorrean, berrikuntza nagusi bat dakar Dekretu berriak: Lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, idatzizko zein ahozko adierazpen- eta ulermen trebetasunetan gaitasun-maila bera behar denean, hizkuntza-eskakizuna simetrikoki adieraziko da. Aldiz, lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, idatzizko zein ahozko adierazpen- eta ulermen-trebetasunetan gaitasun-maila diferenteak behar direnean, hizkuntza-eskakizuna asimétrikoki adierazi ahal izango dira, eskema honetan aurreikusitakoaren arabera:

IRAKURMENA ETA IDAZMENA	ENTZUMENA ETA MINTZAMENA
A2	B1
B1	B2
B2	C1
C2	C1

1.1.3. Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legea

Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren oinarria izan zen, besteak beste, eta lanpostuen zerrendetan jaso beharreko hizkuntza-baldintza eta betebeharren bidez, aurrerapauso nabarmena egin zen euskaraz jarduteko gaitasuna zuten langile-kopuruan. Diziplina araubidearen atalean ere, hizkuntzagatiko diskriminazioa dakarren edozein jarduketa hutsegite larritzat tipifikatu zen.

Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen bitartez eguneratu zen 6/1989 Legea, eta, hizkuntzagatik diskriminazioa dakarren edozein ekintza falta oso astuna dela berrestez gain, euskaraz erabiltzeko hizkuntza-normalizazioarekiko konpromisoa arautzat hartzen da, eta horretarako neurriak ezarri eta betetzen direla ere zehazten da.

Horretarako, plangintzaldi bakoitzerako lortu nahi diren helburuak, hartu beharreko neurriak eta jarri behar diren bideak finkatu behar direla ezartzen da.

1.1.4. Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna

1992an Europako Kontseiluak Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna onartu zuen, eta, orduetik, hizkuntza-eskubideekiko errespetua jasota eta aitortuta dago. Espainiako Erreinuak 2001ean berretsi zuen administrazio guztiei dagokiela eremu urriko hizkuntzetan mintzatzen diren herritarrei haien hizkuntzan harrera egitea eta zerbitzua eskaintzea.

1.1.5. Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legea

Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 3. Artikuluko printzipio orokorretan ere honakoa adierazten da:

«Hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea. Honela definitzen duena: Euskal botere publikoek bermatu behar dute hizkuntza-eskubideak baliatzen direla eta euskararen erabilera sustatzen dela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.

Horretarako, berdintasun-politikak garatzeko orduan, ziurtatuko dute, beste neurri batzuen artean, interesdunak aukeratutako hizkuntza koofizialean ematen direla zerbitzuak, herritarrentzako prestakuntza-, partaidetza- eta sentsibilizazio-jardueretan hizkuntza-eskubideak bermatzen direla, eta langile eta profesionalentzako jardueretan euskararen erabilera sustatzen dela».

Lege berak genero-ikuspegiaren integrazioaren gainean zera adierazten du:

“Euskal herri-aginteeek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten. Lege honen ondorioetarako, honako hau da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea”

Printzipio horrek euskal herri-aginteen politika eta ekintzei erreferentzia egiten dienean, euskararen eremuan egiten diren politika eta ekintzak ere aintzat hartzen ditu. Beharrezkoa ikusten dugu, beraz, hizkuntza-politikaren eremuan genero-ikuspegia txertatzen dugun gogoeta egitea, baita (ahal dela) lanerako oinarri batzuk jartzea ere. Azkenik, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 13. artikulua pertsonen eskubideak administrazio publikoekiko harremanak xedatzen ditu eta norberaren autonomia erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie herritar guztiei.

Horiek horrela, 2024-2027 Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa lantzeko, Dekretu berriaren edukiak eta bertan aipatzen den metodologia izan ditugu txosten honetan jaso dugu kontuan.

Horrenbestez, txosten honetan jaso dugu EMAKUNDEn euskarak daukan egoeran oinarrituta eta berau hobetzeko erronkak, helburuak, neurriak, arduradunak eta epeak.

2. PLANAREN OINARRIAK ETA BALIABIDEAK

2.1 Plangintzaldi berriaren gidalerroak

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak argitaratu dituen VII. Plangintzaldirako gidalerroen arabera, erakunde puboikook dagokigun autonomia baliatuz herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu beharra daukagu; izan ere, legediaren arabera herritarrek bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubidea dute eta Administrazioak, aldiz, eskumen hori bermatzeko obligazioa.

EMAKUNDEn hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko beharrian hori Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planen bitartez gauzatzen dugu; izan ere, plan horien bidez, erakundeak sustapen-ekintzak abiatzen ditu euskara zerbitzu hizkuntza gisa bermatzeko eta gure erakundeko esparru guztietan euskararen erabilera areagotzeko.

Helburu hori lortzeko, agintari politiko eta teknikoak izango dira, ezinbestean, EMAKUNDEn hizkuntza ofizialen erabileraren kudeaketa gidatu eta lideratuko dutenak. Eginbide horri ganoraz heltzeko, HPSk eman dituen hainbat aholku kontuan izan ditugu hizkuntza-kudeaketa eraginkorra egiteko.

Izan ere, VII. Plangintzaldiko hiru elementurik funtsezkoenak, egitura, sistematika eta adostasuna, kudeaketari dagozkio; eta era berean, kudeaketak erabateko eragina du erabileran.

Horrela, egiturari dagokionez, hizkuntza-kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzeko beharra kontuan hartuta, hori gauzatzeko sistematika bat ezarri da, erakundearen dauden pertsonak eta tarteko arduradunak inplikaturik.

Bestetik, EMAKUNDEk parte-hartzaile guztien adostasuna, inplikazioa eta elkarlana zaindu eta bilatu ditu. Hala, langileen partaidetza bultzatu da eta, era berean, erakundeak langileekiko konpromisoak hartu ditu, normalizaziorako baliabideak jarriz eta trebakuntzarako erraztasunak emanez, besteak beste.

Aurrekoek gain, euskararen erabilera sustatzeko prozesu arrakastatsuak egin dituzten erakundearen esperientziari erreparatuta, hainbat ondorio azaleratu dira. Besteak beste, EAEko sektore publikoak eskaintza linguistiko aktiboa egin behar duela, hizkuntza-hautuaren zama eta estres linguistikoa herritar eta eragileen bizkarretik kentzeko. Gainera, erakundeek modu proaktiboan parte hartu behar dute euskararen erabileraren aldeko ekimenetan eta Plan honek horretan ere jarri nahi du begirada.



1 Hizkuntza-kudeaketa zergatik?

EAEen juridikoki maila berean dauden bi hizkuntza ofizial ditugun arren, nahi baino gehiagotan, ez daude maila berean. Hori dela eta, herri-erakundeek dagokigun autonomia baliatuz herriaren hizkuntza-eskubideak bermatu beharra daukagu: izan ere, legeelaren arabera herriarek bi hizkuntza ofizialeko edozein erabiltzeko eskubidea dute eta Administrazioak, aldez, eskumen hori bermatzeko obligazioa.

2 Agintarien ekimena, giltzarri

Erakundeak gainerako arloetan bezalaxe, agintari politiko eta teknikoak izango dira, ezinbestean. Administrazioan hizkuntza ofizialen erabileraren kudeaketa gidatu eta lideratuko dutenak.

Egibide hori gaineraz heltzeko, HPSA—erleko hizkuntza-politika koordinatzaile eskunde—aren sorrerara den aldetik— hurrengo orrialdean aurkituko dituzun aholku hauek ematen dizkie herri-erakundeetako burari hizkuntza-kudeaketa eraginkorra egin dezaten.

3 Arrakastarako bidean

Aurrekoek gain, euskararen erabileraren sustapenean prozesu arrakastatsuak egin dituzten erakundearen esperientziari erreparatuta, honako ondorio hauek azaleratu zaizkigu:

4 Hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko egitura

Erakundearen hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko egitura bat sortzea ezinbestekoa izango da gure hizkuntza kudeaketa bat egiteko berriz.

Jakina, erakundearen tamaina eta ezaugarriak zehaztu diren, egituraren osatzaileak erabakiko dira.

5 Hizkuntza-irizpideak

Hizkuntza Ofizialek Erabiltzeko Irizpideak oinarriko jardun-ildoak ematen dituzte, bai erakundeek bai bertako langileek, hizkuntza-arloan nola jokatu behar duten jakin dezaten. Irizpide hauek EAEko sektore publikoko erakunde bakoitzak finkatu behar ditu, betiere haren hizkuntza-plangintzaren esparruan.

6 Plan estrategikoa eta kudeaketa-planak

Planak ezinbesteko tresnak dira erakundearen hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko.

Planen artean, plan estrategikoa eta kudeaketa-planak bereiztu beharra dago.

7 KEMEN

KEMEN, Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako, euskararen normalizazio-prozesua kudeatzeko gako eta baliabideak ematen dituen sistema integrala da, edozein erakunde motatan, euskararen erabilera normalizatzeko prozesua modu antolatuta eta eraginkorrean kudeatzeko.

Marko estandar berria 2 ardatzetan egituratuta dago eta 13 arlo aurreikusten ditu.

8 Adierazle-sistema

KEMEN markoak erabilera-plan eraginkorren diseinatzea, kudeaketa eta jarraitapena egitea aurreratu behar zaien. HPSA eta euskararen erabilera kudeatzeko adierazle-sistema berrak ematen ditu hurrengo plangintzaldira. Berrak ematen dituzten adierazle berrak dira, besteak beste, erakundearen erabilera-eremuaren zeharkalatasunaz, euskararen kudeaketa sistematizatzeaz, adierazlearen indarraz eta euskararen sustatzeko estrategiaz.

2.2 Planaren metodologia, egiturak eta urratsak

Esan bezala, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (hemendik aurrera HPS) euskal sektore publikoko erakundeek euskararen erabilera kudeatzeko eta jarraipena egiteko marko eta tresna berriak garatu ditu, eta VII. Plangintzaldirako metodologia eta markoa proposatu ditu: KEMEN, Kudeaketa eta Erabilera Marko Euskararen Normalizaziorako.

KEMENek erakundeetan euskararen kudeaketa, erabilera eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen ditu. Marko berrian lehentasunezko tokia aitortzen zaio kudeaketari, hau da, planak garatzeko egiturari, sistematikari eta elkarlanari. Baina kudeaketa ez da helburua, baliabidea baizik. Beraz, KEMENek kudeaketa eta jarraipenerako adierazleen sistema eguneratzea ekarri du eta hurrengo hauek dira marko berriaren ezaugarri nagusiak:

- Edozein erakundetan, euskararen erabilera kudeatu eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen dituen markoa da.
- Kudeaketa erdigunean jarri da, eta euskararen erabilerari dagozkion adierazleetan eragin handia duten kudeaketa-adierazleak txertatu dira: jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia...
- Adierazleen formulazio positiboa egin da, normalizazio-prozesuaren norabidea markatzeko asmoa.
- Erakunde bakoitzak markoa bere errealitate, ezaugarri eta beharretara egokitzeko aukera dauka.
- Aginte-panela osatu da. Aginte-panelak Euskal Sektore Publikoko erakundeen jarraipenerako gutxieneko adierazleak biltzen ditu (14 adierazle).

Hauxe da KEMEN marko osoa:

1. eremua: KUDEAKETA		2. eremua: ERABILERA			
Arloak	EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Ardatzak	ZERBITZU HIZKUNTZA	Arloak	IRUDIA
	LIDERGOA		LAN-HIZKUNTZA		HERRITARREKIKO HARREMANAK
	LANGILEAK	BARNE-HARREMANAK			
	GAITASUNA	KANPO-HARREMANAK			
	EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	PRESTAKUNTZA			
	HIZKUNTZA-KLAUSULAK	BALIABIDE INFORMATIKOAK			
			SORTZE-HIZKUNTZA		

Eta honako hau da aginte-panela:

KUDEAKETA

EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	→	1. Erabilera-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.
LIDERGOA	→	2. Arduradunek (politiko eta teknikoek) parte hartzen dute erabilera-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean. 3. Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera-planean finkatutako helburuak bete daitezzen.
LANGILEAK	→	4. Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	→	5. Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.

ERABILERA


ZERBITZU-HIZKUNTZA	HERRITARREKIKO HARREMANAK	→	6. Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen. 7. Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz. 8. Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira. 9. Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak. 10. Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.	
		BARNE-HARREMANAK	→	11. Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da. 12. Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.
		KANPO-HARREMANAK	→	13. Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak
		SORTZE-HIZKUNTZA	→	14. Euskaraz sortzen dira dokumentuak


Erakunde bakoitzak plangintzaldiaren hasieran, erdian (2025ean) eta amaieran (2027an) egin beharko du autoebaluazioa, eta, gutxienez, aginte-paneleko adierazleen datuak bidali beharko

dizkio Hizkuntza Politika Sailburuordetzari. Horretarako, SAREGIN izeneko aplikazio informatikoa sortu dute, datuak jaso eta Plan Estrategikoa eta kudeaketa-planak kudeatzeko.

Esan bezala, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana osatzeko gidalerro eta adierazle-sistema berriak hartu ditugu aintzat.

Egiturari dagokionez, hauek dira Euskararen Erabilera Plana diseinatzeko, garatzeko eta jarraipena egiteko dagoeneko abian diren lantaldeak: Koordinazio-taldea eta Euskara Batzordea. Horien lanketaz gain, zuzendaritza-taldean aztertu eta osatzen da plana, eta haren garapenaren segimendua bertan ere egiten da. Bestalde, planaren nondik norakoak erakunde osoari aurkezten zaizkio urtean bitan zaio ekarpenak egin ditzan eta hala egingo da 2024-2027 planaren kasuan ere.

KOORDINAZIO-TALDEA	EUSKARA-BATZORDEA
PARTAIDEAK	PARTAIDEAK
 <ul style="list-style-type: none"> EMAKUNDEko zuzendaritzaren ordezkaria EMAKUNDEko euskara-koordinatzailea Kanpo-aholkularia 	 <ul style="list-style-type: none"> EMAKUNDEko zerbitzuetako langileak EMAKUNDEko zuzendaritzaren ordezkaria EMAKUNDEko euskara-koordinatzailea Kanpo-aholkularia
FUNTZIOAK	FUNTZIOAK
<p>Planaren diseinuaz, garapenez eta jarraipen zuzenaz arduratzen den taldea da; zeregin nagusia da plana egunerokoan kudeatzea eta dinamizatzea, eta alderdi operatiboez ere arduratzen dira.</p>	<p>Planaren helburu eta ildo nagusiak zehaztu dituzte eta planaren sustatzaile eta gauzatzaile nagusiak izan dira azken plangintzaldian eta VII. Plangintzaldian ere proposatutako ekintzen eragile/liderrak izango dira. Gainera, planaren jarraipena egingo dute</p>



3. DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA

VII. Plangintzaldiaren hasierako diagnostikoa egiteko, VI. Plangintzaldiaren bukaerako ebaluazio-datuak erabili ditugu, eta KEMEN markora egokitu ditugu. Adierazle guztiak ez datoz guztiz bat, baina ahalegindu gara adierazleei dagozkion datu ahalik eta errealean jasotzen. Hala ere, bada adierazleren lortu ez duguna. Edonola ere, Planaren lehen ebaluazioa egiten denean izango ditugu adierazle guztien datu zehatzagoak.

Horrela, jarraian jaso dugu EMAKUNDEko euskararen erabilera eta gaitasunaren eta presentziaren egoeraren argazki kuantitatibo zein kualitatiboa, KEMEN markoaren arlo bakoitzean erakundea zein puntutan dagoen aztertuta. Beraz, emaitza kuantitatiboei dagokienez, hauxe da egoera:

3.1. Kudeaketa

ARLOA	HELBURUAK			
	ZK	ADIERAZLEAK	BISIOA	
			HASIERAKO EGOERA 2023 (%)	AURREIKUSITAKO EGOERA 2027 (%)
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	1	Erakundeak erabilera-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du	100	100
	2	Erabilera-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	50	100
	3	Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberitzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean	100	100
LIDERGOA	3	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezzen	70	100
	4	Arduradunek (politiko eta teknikoek) parte hartzen dute erabilera planean diseinuan, garapenean eta jarraipenean	100	100
	5	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleak biltzen dituzte, erabilera-planean zehaztutako moduan	100	100
LANGILEAK	6	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko erabilera-planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten	96,3	100
	7	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte	96,3	100
	8	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak	100	100
	9	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan	66,7	80
	10	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz	100	100
GAITASUNA	11	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	88	100
	12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	88	100
	13	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko	100	100
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	14	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldee		
	15	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatze ekimenetan parte hartzen du	100	100
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	16	Kontratuaren hizkuntza-klausulak txertatzen dira	100	100
	17	Dirulaguntza eta hitzarmenaren hizkuntza-klausulak txertatzen dira	100	100
	18	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuaren hizkuntza-klausulen betetze-mailari	ez	100
	19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenaren hizkuntza-klausulen betetze-mailari	ez	100

3.2. Erabilera

ARLOA	HELBURUAK				
	ZK	ADIERAZLEAK	BISIOA		
			HASIERAKO EGOERA 2023	AURRE KUSITAKO EGOERA 2027	
2 - 1 Z E R B I T Z U H I Z K U N T Z A	IRUDIA	20	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude	100	100
		21	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude	100	100
		22	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan	40	100
		23	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak	100	100
	HERRITARREKIKO HARREMANAK	24	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	90	100
		25	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	97,2	100
		26	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	100	100
		27	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	91,1	100
		28	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	96,2	100
		29	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz	50	60
30		Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz			
2 - 2 L A N H I Z K U N T Z A	BARNE-HARREMANAK	31	Lan-bilerak euskaraz egiten dira	73,2	90
		32	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da	70	90
		33	Lankideen arteko idatzizko harreman ez-formala euskaraz izaten da	65	90
		34	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira	40	100
		35	Erakunde barneko prozedura administratiboak euskaraz jartzen dira abian	40	70
		36	Xedapen orokorrak euskaraz jartzen dira abian	40	70
		37	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago	80	90
KANPO- HARREMANAK	38	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana	81,6	90	
	39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	95,9	100	
	40	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana	56,8	70	
	41	Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	92	100	
PRESTAKUNTZA	42	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei		50	
	43	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra	34	50	
	44	Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei	bai	100	
BALIABIDE INFORMATIKOAK	45	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak	100	100	
	46	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak	77,8	90	
SORTZE-HIZKUNTZA	47	Euskaraz sortzen dira dokumentuak	79,6	90	

3.3. Hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak eta betetze-maila

Gaitasunaren arloari dagokionez, ezinbestekoa da aipatzea zein diren lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak eta lanpostu horiek betetzen dituzten langileek egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak. Izan ere, gaitasun erreala argazki zehatza ematen ez badute ere, oinarri garrantzitsua dira benetako argazkia ezagutzeko eta erabilera-planeko ildoak diseinatzeke.

Horrela, 86/1997ko Dekretuaren 11. artikulua erakundeak nahitaez bete beharreko derrigorrezko hizkuntza-eskakizunen indizea ezartzen du. Indize hori plangintzaldi bakoitza hasterako indarrean dauden Errolda eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistiko ofizialen arabera zehazten da. Derrigortasun Indizea da erakunde bakoitzean hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeke derrigortasun-data izango duten lanpostuen gutxiengo ehunekoa. Derrigortasun Indizeak gutxiengo ehunekoa adierazten du. Erakunde bakoitzak ehuneko horretatik gora jo dezake, bere egoeraren arabera. Hori horrela, erakunde bakoitzaren Derrigortasun Indizea formula honen bitartez kalkulatu da:

$$DI (\%) = \text{euskaldunen } \% + (\text{ia euskaldunen } \% / 2)$$

Hau da, Derrigortasun Indizea ehuneko bat da, eta bi ehuneko hauen batuketa da: erakundearen jardura esparruan dauden euskaldunen ehunekoa, gehi ia euskaldunen ehunekoaren erdia. Horiek horrela, Emakunderi, lurralde osorako erakundea izaki, indize orokorra dagokio. Honakoa: % 52.85.

Horren arabera, VII. plangintzaldi honetan, EMAKUNDEK nahitaez bete beharreko indizea % 52,85 da. Indize hori 2021eko erroldako datu soziolinguistikoaren arabera ateratakoa da (EUSTATEk eman dituen 2021eko Biztanleria eta Etxebizitzako Estatistikaren arabera. 2021/01/01).

EMAKUNDEK indize hori betetzen du lanpostuen %100ek derrigortasun-data esleituta baitauka.

LANPOSTU-KOPURUA	DERRIGORTASUN-DATADUNAK	VII. PLANGINTZALDIAREN NAHITAEZKO DERRIGORTASUN-INDIZEA
37	37	% 52,85

Egiaztatutako hizkuntza-eskakizunei dagokionez, hauek dira datu zehatzak:

LANPOSTUEI ESLEITUTAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK	LANPOSTU-KOPURUA	EGIAZTATUTAKOA (EGIAZTATZE-MAILA)	oharrak
4. HE	6 (lanpostu bat bikoiztuta)	5ek 4. HE (% 83) 1ek 1. HE (% 17)	4. HE egiaztatuta duen titular baten ordezkook ere 4. HE du egiaztatuta.
3. HE	24 (2 lanpostu bikoiztuta)	17k 3. HE (% 71) 3k 4. HE (% 13) 2k 2. HE (% 8) 2k 1. HE (% 8)	1. HE egiaztatuta duten 2 titularren ordezkook 3. HE dute egiaztatuta.
2. HE	6	4k 2. HE (% 50) 1ek 1. HE (% 25) 1ek - (% 25)	
1. HE	1	1ek	

Lanpostuen zerrendan 37 lanpostu daude; horietako 3 bikoiztuta daude.

Laburbilduz, 37 lanpostuak betetzen dituzten langileetatik, 27 langilek dute egiaztatuta lanpostuari dagokion eskakizuna (% 73) eta 30ek dagokiena edo altuagoa (% 81). 7 langile dira, aldiz, dagokiena, baino bat edo bi gutxiago egiaztatuta dutenak. Eta langile bakarra da hizkuntza-eskakizunik egiaztatuta ez duena; hau da, EMAKUNDEko langileen % 97k du egiaztatuta hizkuntza-eskakizunen bat. 2. HETik gorako egiaztatze-maila % 84 da.

3.4. Euskarazko atalak

Datu horiek ikusita, agerian geratzen da EMAKUNDEn euskarazko atalen gaia kontuan izateko beharra.

VI. plangintzaldirako irizpide orokorren arabera, euskarazko atalak dira beren eginkizunak batez ere euskaraz betetzen dituztenak eta euskarazko atal izendatuko dira honako baldintza hauek betetzen dituzten atalak:

- Atalburuak eta atala osatzen duten lanpostu guztien edo ia guztien lanpostu guztietan derrigortasun-data ezarrita izatea.
- Atalburu den langileak eta gainerako langile guztiek edo ia guztiek diharduten lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea. Laugarren hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan, kontuan izango da langileak hirugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea.
- Zeregin gehienak euskaraz betetzea, betiere herritarrek zerbitzu-hizkuntza hautatzeko duten eskubidea urratu gabe.

Ondorioz, baldintzak betetzen diren atal horietan, euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza ere izango da: hau da, agirien sorburu-hizkuntza euskara izango da, baita lehen hizkuntza ere jendaurreko harremanetan eta atalaren gainerako zereginetan ere.

Euskarazko atalari bere lana nagusiki euskaraz egitea dagokio eta, ondorioz, euskara izango du lan-hizkuntza ohikoa eta normala. Hori baina, ez da erakundeak hartutako erabaki baten ondorioz egun batetik bestera lor litekeen helburua, baizik eta urte luzetako dinamika eta lan-ohiturak aldatzeko prozesu baten barruan progresiboki lortu beharrekoa.

Euskarazko lansail eta atalen artean izango da, eta dagoeneko bada, euskara lan-hizkuntza ohikoa eta normala duenik, baina era berean bada helburu horretara iristeko Plangintzaldiaren barruan ibilbide bat, luzeagoa edo laburragoa baina ekinez egin beharreko ibilbide bat, egin beharrean izango denik ere.

Prozesu hori arrakastatsua izan dadin behar besteko baliabideak eta laguntza eskaini behar dizkiete erakundeek bertako langileei eta ordezkariari (prestakuntza orokorra euskaraz, berariazko hizkuntza-prestakuntza, trebakuntza, zuzenketa eta kontsulta-zerbitzua, dokumentu estandarizatuak, hiztegiak, zerrenda terminologikoak, itzulpen-memoria eguneratuak, zuzentzaile automatikoa...).

Euskarazko atal edo lansail izendatzeak normalean idatzizkoan jartzen du fokua. Baina, esan beharrik ez dago laneko harremanetan egiten den ahozko erabilera ere lan-hizkuntza dela, eta inolaz ere ez idatzizkoak baino garrantzi gutxiagokoa.

Nolanahi ere, erakundeek bermatuko beharko dute herritarrekin dituen harremanetan herritarrak hautatutako hizkuntza ofizialaren erabilera, herritarrari zama edo ezerosotasunik eragin gabe.

Herritarraren hizkuntza-hautua errespetatzea, dela euskara dela gaztelania hautatutako hizkuntza, uneoro eta beste ezerean aurretik bete behar da eta beteko da.

4. DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA

Diagnostiko kualitatiboari erreparatzen badiogu, hauek dira emaitza eta ondorio nagusiak:

4.1. Kudeaketa

ARLOA	EGOERA	INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	VI. Plangintzaldian zehar zerbitzu guztietako ordezkariak ostutako Euskara Batzordea antolatu zen. Bertan Zuzendaritzako bi kidek parte hartzen dute. Erabilera Plana eta urtez urteko kudeaketa-planak EBan eta Zuzendaritza Taldean kontrastatu eta osatzen dira. Plangintzaldi honetan zehar, gainera URREZKO BIKAIN ziurtagiria lortu zuen EMAKUNDEK.	Emakundeko zuzendariak eta zerbitziburuek barneratuta Erabilera Planaren ardura.	Sistema eta egitura osatuta daude, baina funtzionamendua eta Planaren zein hizkuntza-irizpideen segimendua hobetu beharko litzateke, segimendua sistematizatzea.
LIDERGOA	Zuzendaritzak euskara sustatzeko erabaki sendoa hartuta du. Plana garatzeko ekintzak babesten ditu eta parte hartzen du. Planaren segimendua Euskara Batzordean egiten da, eta bertan parte hartzen dute zuzendaritzako bi kidek. Horrez gain, urtean bi saio orokor egiten dira Kudeaketa-planak aurkezteko, osatzeko eta baloratzeko. Horietan erakundeko zuzendaritza-taldeak parte hartzen du. Zuzendaritzak BIKAIN ziurtagiria lortzeko erabakia hartzeaz gain, prozesuan ere zuzenean parte hartu zuen.	Emakundeko zuzendaritza-taldeko babes du. Planak kideen	Zuzendaritza-taldeak plana babesten du, baina parte-hartze zuzenagoa izatea komeniko litzateke. Batzuetan ardurek eta eguneroko lanek zaildu egiten dute planifikatutako ekintzak aurrera eraman ahal izatea. Arduradunek proaktiboago jokatzeko komeniko litzateke.

<p>LANGILEAK</p>	<p>Langile guztiek lau bide nagusi dituzte planaren ingurukoak jasotzeko: Urtean bitan egiten diren aurkezpenak, zerbitzuetan egiten diren lanketetan, buletin bidez hiru hilean behin, eta Euskara Batzordekideen bitartez.</p> <p>Hizkuntza-irizpideak EMAKUNDEren egoera eta beharretara egokitu dira eta zerbitzuka aurkeztu dira. Emakunde osatzen duten guztiek izan dute parte hartzeko aukera, eta betetzeko zailtasunak identifikatzeko zerbitzu guztien iritziak jaso dira. Euskarri desberdinak sortu dira denek eskura izateko.</p> <p>Euskara Batzordean adosten eta antolatzen dira euskara sustatzeko ekintzak, eta asko komunikatiboak edo lankideen parte-hartzea areagotzekoak dira. Planaren bilakaerari buruzko balorazioak onak edo oso onak dira. Aldian behin planaren inguruko galdetegia pasatzen da hobetzeko proposamenak ere jasotzeko asmoz.</p>	<p>Oro har, langileen euskararen aldeko jarrera eta motibazioa. Langileen zailtasunak ezagutzeko bideak landu dira.</p>	<p>Komunikatzeko ahalegina egiten bada ere, hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren segimendua ez da sistematikoa eta betetze-maila ere ez da erabatekoa.</p> <p>Langileen parte-hartze zuzena planean gutxituz joan da azkenaldian eta zerbitzuetan zuzenean lan gutxiago egin da. Hala adierazi dute Emakundeko kideek balorazioetan ere.</p> <p>Plan berrian langileak planaren parte senti daitezten ahalegin berezia egin beharko litzateke.</p>
<p>GAITASUNA</p>	<p>Gero eta langile gehiago dira gai lanpostuan betetzen dituzten funtzioak ahoz zein idatziz betetzeko. Batetik erakundeak baliabideak eskaintzen dituelako horretarako, eta bestetik, langile berriak gaituagoak direlako. Arduradun politikoak eta teknikoak gai dira lanpostuaren funtzioak gehienak euskaraz betetzeko.</p>	<p>Erakundeak baliabideak jartzen ditu langileek euskara-gaitasuna areagotzeko, ahoz zein idatziz.</p> <p>Emakunde osatzen duten kideen ehuneko handi bat gai da euskaraz laneko ia funtzio gehienak egiteko.</p>	<p>Gaitasuna badago ere, praktika ez da maila berekoa. Ohitura- eta segurtasun-falta dira arrazoi nagusiak, baita lan-karga ere.</p>
<p>EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA</p>	<p>EMAKUNDEk bide arrakastatsua egin du euskararen normalizazioan eta erreferente da euskararen erabilerari eta kudeaketari dagokionez.</p>	<p>EMAKUNDEko arduradunek apustu sendoa egin dute euskararen normalizazioan eta langileek ere parte-hartze zuzena izan dute</p>	<p>Aurrera begirako urratsak egiten segitu behar da, lortutakoan ez geratu eta atzera ez egin. Kanpo-eragileekin sinergiak sortzeko ahalegina egin behar da.</p>

		asmo horretan; URREZKO BIKAIN ziurtagiria lortu izana da horren lekuko. Praktika onak gainerako erakundeekin partekatu izan dira.	
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	Kontratazio-pleguetan, dirulaguntzen baldintzetan... hizkuntza-klausulak txertatzen dira, baina ez da segimendu handirik egiten. Horrez gain, plegu guztiak ez daude ele bietan.	Hizkuntza-klausulak plegu guztietan txertatzen dira sistematikoki.	Hizkuntza-klausulen betetze-mailaren segimendurik ez da egiten sistematikoki eta pleguen hizkuntzen azterketa ere egin beharra dago.

4.2. Erabilera

4.2.1. Zerbitzu-hizkuntza

ARLOA	EGOERA	INDARGUNEA	HOBETU BEHARREKOAK
IRUDIA	<p>Irudiari dagokionez, orokortua dago elebitasunaren ildoan. Errotulazioan, irudi korporatiboko elementuetan eta esparru digitalean guztia dago ele bietan; bide beretik, ele bietan zabaltzen dira erakundearen iragarkiak eta publizitateak, baita berriak eta sare sozialetako edukiak ere.</p> <p>Jendaurreko ekitaldietan (agerraldiak, prentsaurrekoak, jardunaldiak...), informazioaren % 40 eskaintzen da euskaraz; horrek ez du esan nahi bost ekitalditik bi egiten direnik euskara hutsez, baizik eta ekitaldietan eskaintzen diren informazio-unitateen % 40 jaso daitezkeela euskaraz (ere).</p>	Irudiari dagozkion adierazle ia guztietan bi hizkuntzak erabiltzen dira.	Agerraldi instituzionaletan bi hizkuntzak modu orekatuagoan erabiltzea sustatu behar da. Bestalde, ahal denean, agerraldi instituzionalak, kanpo-ekitaldiak zein bestelako zenbait elementu ere, euskara hutsean egitea aztertu liteke .

<p>HERRITARREKIKO HARREMANAK</p>	<p>Herritarrekiko erlazioei dagokienez, erakundeko langileek emandako datuen arabera, herritarrei euskaraz bidaltzen zaizkie dokumentu edo idazki ofizial gehien-gehienak: ele bietan bidaltzen dira % 76, eta euskara hutsez % 16. Herritarrek euskaraz aurkeztutako idazkiei dagokienez, ia denei ematen zaie erantzuna euskaraz: % 83ri, euskara hutsez; % 13ri, euskaraz eta gaztelaniaz.</p> <p>Herritarrekiko ahozko erlazioei dagokienez, aztertu da langileek zein hizkuntzatan eskaintzen duten harremana (lehen hitza) bai aurrez aurreko harremanetan, bai telefono bidezkoetan. Eta herritarrak zein hizkuntzatan jarraitzen duen langileak lehen hitza egin ondoren. Aldi honetan, aurrekoan ez bezala, bereizi egin da harrera-guneetako langileen eta gainerakoen jarduna. Erakundearen herritarrei euskaraz egiten zaie harrera nagusiki. Herritarren hautuari dagokionez, harrera-guneetan zertxobait handiagoa da euskararen erabilera, harrera-guneetatik at baino.</p> <p>Euskaraz hasten diren herritar ia guztiei bermatzen zaizkie hizkuntza-eskubideak, langileek ere euskaraz erantzunda: % 97ri erantzuten zaie euskaraz.</p> <p>Erakundeko langile gehien-gehienak gai dira herritarrak euskaraz artatzeko. Herritarrak euskaraz hasi eta langileak hitz egiteko gaitasunik ez badu, jokabide hau hartzen dute beharginek: herritarrari eskatzen diote jarraitzeko euskaraz, ulertzen diotelako, nahiz eta haiek gaztelaniaz erantzun. Edonola ere, herritarrekin harreman zuzen gutxi dute EMAKUNDEko langileek.</p>	<p>Ahoz zein idatziz ehuneko handi batean egiten da euskaraz, eta horretarako gaitasuna badago</p>	<p>Zerbitzua euskaraz erabat bermatu behar da, ahoz zein idatziz; besteak beste, dokumentazioa euskaraz aurkeztu duten herritar guztiei euskaraz erantzungo zaiela ziurtatu. Eta euskaraz egin dadin sustatzeko proaktiboago jokatzeko komeni da; eskaintza “aktiboagoa” egin.</p>
---	--	--	--

4.2.2. Lan-hizkuntza

ARLOA	EGOERA	INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
BARNE-HARREMANAK	Lankideen arteko ahozko lan-harremana EUSLE metodologiaren ondorioz handitu egin zen, baita lan-bileretan euskararen erabilera ere. Hainbat ekimen egin dira horretarako: eusle metodologia, gaitasuna areagotzeko baliabideak, hizkuntza-irizpideak betetzeko zailtasunak jasotzea... Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak gero eta gehiago egiten dira euskaraz, batez ere emailak, kasu horretan sortzeko eta itzultzeko prozedurari eta itzultzaile neuronalari esker. BIKAIN ebaluazioan parte hartu izanak ere, bultzada eman zion euskararen erabilerari.	EMAKUNDEko arduradunen eta langileen ahalegina, jarrera eta inplikazioa euskara sustatzeko	EUSLE proiektuarekin, sortzeko prozedurarekin eta BIKAIN ebaluazioarekin lortutako aurrerapenari eustea kostatzen da. Barneko erabilera areagotzeko eta azken finean, euskara lan-hizkuntza izateko estrategiak eta ekintzak lantzen segitu beharra dago.
KANPO-HARREMANAK	Sektore publikoko eragileekin euskarazko ahozko zein idatzizko harremana handitu egin da. Sektore pribatuaren kasuan, aldiz, euskararen erabilera handitu bada ere, idatzizkoan ele bietan bidaltzen direnak areagotu dira.	Langileek euskara-gaitasuna badute kanpo-harremanetan euskararen erabilera areagotzeko. Azken urteetan zehar aurrerapauso handiak egin dira.	Kanpo-harremanetan, bereziki Administrazioen artean, harremana euskaraz izan dadin proaktiboago jokatu beharko litzateke.
PRESTAKUNTZA	Hizkuntza-trebakuntzari dagokionez, erraztasunak ematen ditu erakundeak euskara ikasteko. Trebakuntza orokorraren kasuan, euskarazko eskaintza handiagoa izan dadin, hizkuntza-irizpideen dokumentuak irizpide zehatzak jaso dira.	Euskarazko eskaintza handiagoa izan dadin langileen jarrera eta borondatea.	Trebakuntza orokorraren euskarazko eskaintza areagotzeko bidea lantzen segitzea komeni da eta langileek euskarazko ikastaroak aukeratzeko sustatze-lana egitea.
BALIABIDE INFORMATIKOAK	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak. Langileen % 52k euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten	Erakundeak hasieratik jartzen ditu euskarazko baliabide informatikoak langileen	Aplikazioak euskaraz izanda ere, denek ez dituzte euskaraz erabiltzen

	aplikazio informatikoak	eskura	
SORTZE-HIZKUNTZA	Langileei galdetu zaie zein hizkuntzatan sortzen dituzten dokumentuak, mezuak, gutunak...; haien arabera, testu gehienak daude euskaraz sortuta, ia bostetik lau: % 44 euskara hutsez eta % 36 ele bietan.	Langileek gaitasun handia laneko dokumentu gehienak sortzeko.	Gaitasuna badago ere, ohitura handia dago dokumentu jasoak gaztelaniaz sortzeko. Horrez gain, segurtasun-falta ere bada. Beldurrak kentzeko eta konfiantza lortzeko lanketa berezia egin beharra dago.

5. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

5.1. Planaren erronkak eta helburu estrategikoak

Jarraian, 2027an non egon nahi dugun jaso dugu, horrela definitu ditugu plan honen erronka nagusiak:

KUDEAKETA	
ERRONKA	Hizkuntzen kudeaketa eraginkorra bermatzeko, egitura eta antolamendu-sistema egokia sortzea eta arduradun tekniko eta politikoei euskararen kudeaketan parte-hartze zuzenagoa izatea.
ERABILERA	
ERRONKA	Emakunden euskara lan-hizkuntza izateko urrats sendoak egitea, eta finkatutako helburuak bete daitezzen arduradunek eta langileek jarrera proaktiboa izatea.

Era berean, erronka horiek lortzeko zer egin behar dugun adostu dugu, eta horrela definitu ditugu planaren erronkak garatzeko helburu estrategikoak:

HELBURU ESTRATEGIKOAK	
KUDEAKETA	
KUDEAKETA OROKORRA	<ul style="list-style-type: none">Euskara kudeatzeko sistema egituratua eta eraginkorra bermatzea.
LIDERGOA	<ul style="list-style-type: none">Arduradun tekniko eta politikoei euskararen kudeaketan sistematikoki parte hartzea.
LANGILEAK	<ul style="list-style-type: none">Langileek erabilera-planaren parte sentitzea eta planifikatutako ekintzak garatzea.Langileen parte-hartzea areagotzea, batez ere euskara-gaitasuna handitzeko ekimenetan.Langileek hizkuntza-irizpideak benetan barneratzea; bereziki euskaraz lan egiteko irizpideak barneratzea, estrategiak lantzea eta baliabideak eskaintzea.
GAITASUNA	<ul style="list-style-type: none">Emakundeko pertsona guztiak prestatzea eta laguntzea dagozkien lan-funtzioak euskaraz egin ahal izateko.Langile guztiak ahoz eta idatziz euskaraz eroso aritzeko gaitzea.Euskara-gaitasun nahikoa dutenei euskaraz sortzeko estrategiak eta baliabideak eskaintzea.
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	<ul style="list-style-type: none">EMAKUNDEk euskararen normalizazioan lortutako erreferentzialtasunari eustea eta aurrerapausoak egiten segitzea.Plangintzaldi bukaeran URREZKO BIKAIN ziurtagiria berriz lortzea.
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	<ul style="list-style-type: none">Kontratazio-espeditenteak ele bietan egitea.Hizkuntza-klausulen azterketa egitea.Pleguen hizkuntzaren eta hizkuntza-klausulen betetze-mailaren jarraipen egiteko sistema lantzea.

ERABILERA	
ZERBITZU-HIZKUNTZA	
IRUDIA	<ul style="list-style-type: none">- Irudiarekin lotutako Emakundeko euskarri guztiak gutxienez euskaraz egotea (karpetak, panelak, seinalizazioa... baita digitalak ere).- Arduradunek interbentzioak euskaraz egitea, ahal den guztietan.
HERRITARREKIKO HARREMANAK	<ul style="list-style-type: none">- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta herritarren aurrean proaktiboago jokatzeko; euskarazko eskaerei euskaraz erantzutea eta euskarazko eskaintza aktiboa egitea, herritarrak EMAKUNDEekin euskaraz aritu daitezen.
LAN-HIZKUNTZA	
BARNE-HARREMANAK	<ul style="list-style-type: none">- Euskara lan-hizkuntza izateko bidean, EMAKUNDE barruko harremanak nagusiki euskaraz izatea eta horretarako estrategiak lantzen segitzea, euskarazko atalen lanketa, besteak beste.
KANPO-HARREMANAK	<ul style="list-style-type: none">- Kanpo-harremanetan euskararen erabilera areagotzeko proaktiboki jokatzeko.- Enpresak kontratatzeke pleguetako hizkuntza-baldintzak aztertzea, egokitzea eta haien segimendua egitea.
PRESTAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none">- Trebakuntza orokorraren euskarazko eskaintza areagotzea, langileek euskarazko ikastaroak aukeratzea eta 5 urteko epean langileek jasotzen duten prestakuntzaren % 50 euskaraz izatea gutxienez..- Aukera dagoenean, 3. eta 4. HE duten langileek prestakuntza euskaraz jasotzea.- Emakundeko "barne-prestakuntza" (Emakunderen esku dagoena) euskaraz izatea.- IVAPeko prestakuntza euskaraz egitea.
BALIABIDE INFORMATIKOAK	<ul style="list-style-type: none">- Langileek dituzten baliabide informatikoak euskaraz erabil ditzaten sustatzea.- Euskaraz lan egiteko dauden baliabideak eskura jartzea.- Tramitagune euskaraz erabiltzea.
SORTZE-HIZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none">- EMAKUNDEko langileek sortzen dituzten laneko dokumentuak euskaraz sor ditzaten gaitzea eta sustatzea, eta horretarako estrategia zehatzak lantzea; besteak beste, ekimen pilotuak abian jartzea.

6. 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOA

2018-2022ko planaren ebaluaziotik abiatuta, plan berriaren hasierako diagnostikoa osatuta, plan estrategiko berria diseinatu da, Euskara Batzordearen laguntzarekin.

Horretarako, Erabilera Batzordean egoeraren berri emateaz gain, indarguneak eta zer hobetuak identifikatu genituen; hausnarketa kualitatibo horri esker, 2027ra bitartean lortu nahi diren erronkak eta horretarako helburu estrategikoak identifikatu ditugu.

Aipatzekoa da, KEMENeko Aginte Panela osatzen duten adierazleak urtero garatu eta ebaluatuko direla, sistematikoki.

Jarraian jaso ditugu erronka eta helburu estrategiko horiek lantzeko estrategiak eta neurriak, horiek osatuko dute 2024-2027 eperako ibilbide-orria, gure plan estrategikoa, alegia

EREMUA	AZPIARLOA	ERRONKAK	ESTRATEGIAK/NEURRIAK	urtea
KUDEAKETA	KUDEAKETA OROKORRA	Euskara kudeatzeko sistema egituratua eta eraginkorra bermatzea.	Plana etengabe kudeatu Koordinazio-taldean.	urtero
			2024-2027 behin-behineko Plan Estrategikoa landu eta 2023ko Erabilera Plana zehaztu eta gauzatu.	2024
			Planaren zirriborroa Euskara Batzordean aztertu eta osatu.	2024
			Planak Zuzendaritza-taldean aztertu, osatu eta onartu.	2024
			Euskarazko atalen bideari ekiteko, atal horietako batean proiektu pilotua abian jarri.	2024
			Euskarazko atalen bidea ebaluatu, eta aurrera egitea erabakiz gero, beste zerbitzuetara zabaltzeko planifikazioa egin.	2025
			Hizkuntza-irizpideak Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-irizpide berrietara egokitu .	2024
			Hizkuntza-irizpideak betetzeko zailtasunak identifikatu, zerbitzuz zerbitzu .	2024
			Planaren segimendua egingo duen Euskara Batzordearen bilerak egin .	urtero
	LIDERGOA	Arduradun tekniko eta politikoen euskararen kudeaketan sistematikoki parte hartzea.	Zuzendaritzako ordezkariak erabilera-planaren kudeaketa-egituretan parte hartu , eta zuzendaritza-taldeak planaren segimendua sistematikoki egin.	urtero
	LANGILEAK	Langileek erabilera-planaren parte sentitzea eta planifikatutako ekintzak garatzea. Langileen parte-hartzea areagotzea, batez ere euskara-gaitasuna handitzeko ekimenetan. Langileek hizkuntza-irizpideak benetan barneratzea; bereziki euskaraz lan egiteko irizpideak barneratzea, estrategiak lantzea eta baliabideak eskaintzea.	Langileei planaren berri emateko urtean bi saio egin, urte hasieran eta bukaeran (euskararen egunarekin batera).	urtero
			Langile berriei euskara-planaren eta euskararen inguruko enpresen aurkezpena egin.	urtero
			Langileak motibatzeko jarduerak antolatu.	urtero
			Langileei planaren nondik norakoak berri eman eta haien ekarpenak jasotzeko mekanismoak ezarri.	urtero
	GAITASUNA	Emakundeko pertsona guztiak prestatzea eta laguntzea dagozkien lan-funtzioak euskaraz egin ahal izateko. Langile guztiak ahoz eta idatziz euskaraz eroso aritzeko gaitzea. Euskara-gaitasun nahikoa dutenei euskaraz sortzeko estrategiak eta baliabideak eskaintzea.	IVAPen eskaintza aztertu eta Euskarazko Ataletan abian jartzeko egokiak izan daitezkeenak identifikatu.	urtero
			Langileek lana euskaraz egiteko gaitasuna izateko baliabideak eskaini.	urtero
			Euskarazko ataletako langile eta arduradunentzat beharrezko ekimen, trebakuntza eta baliabideak eskaini etengabe.	urtero
			Euskara-gaitasuna areagotzeko dinamikak berreskuratu: "Juntadizoak", eta "eusle metodologia", esate baterako.	urtero
			Euskara-ikasleak lanean euskara erabiltzen hasteko mentoretza edo bidelagun esperientzia pilotua abian jarri eta garatu eta ebaluatu.	urtero
	EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	EMAKUNDEk euskararen normalizazioan lortutako erreferentzialtasunari eustea eta aurrerapausoak egiten jarraitzea. Plangintzaldi bukaeran URREZKO BIKAIN ziurtagiria berriz lortzea.	Praktika onak ezagutzea eta EMAKUNDEn estrategia berriak abiatzea.	urtero
			Web-orrian "euskararen ataria" sortu eta hizkuntza-irizpideez gain, euskara-plana, euskaraz lan egiteko baliabideak, eta euskararekin lotutako dokumentu nagusiak zintzilikatu.	urtero
			Urte bukaeran adierazle esanguratsuenen segimendua egin.	2025 eta 2027
	HIZKUNTZA-KLAUSULAK	Kontratazio-espedienteak ele bietan egitea. Hizkuntza-klausulen azterketa egitea. Pleguen hizkuntzaren eta hizkuntza-klausulen betetze-mailaren jarraipen egiteko sistema lantzea.	Kontratuaren hizkuntza-klausulen segimendua egiteko azterketa egin eta prozedura osoa euskaraz ere izan dadin ziurtatzeko urratsak garatu.	2024-2025
			Kontratu-espedienteak ele bietan egiteko planifikazioa egin eta urratsak egin.	urtero
Kontratu txikitako hizkuntza-klausulak aztertu eta orokortu.			2024-2025	
Enpresak azpikontratatzeko solaskide euskaldunak eta "azken produktua" euskaraz eskatu. Eta kanpokoak direnean, gutxienez azken produktua. Hitzarmenetan ere antzeko baldintzak txertatzea.			2024-2025	

EREMUA	AZPIARLOA	ERRONKAK	ESTRATEGIAK/NEURRIAK	urtea	
ERABILERA	ZERBITZU-HIZKUNTZA	IRUDIA	Irudiarekin lotutako Emakundeko euskarri guztiak euskaraz egotea (karpetak, panelak, seinalizazioa... baita digitalak ere). Arduradunek interbentzioak euskara hutsean egitea, ahal den guztietan.	Hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren segimendua egin.	2025-2027
		HERRITARREKIKO HARREMANAK	Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta herritarren aurrean aurrean proaktiboago jokatzeko; euskarazko eskaerei euskaraz erantzutean eta euskarazko eskaintza aktiboa egitea herritarrek EMAKUNDErekin euskaraz aritu daitezen.	Herritarren aurrean proaktiboago jokatzeko; mahaigainekoak jarri ("nirekin euskaraz...", baita emailtako sinaduretan ere, mezua edo ahobizi/belarripresta jarrita).	urtero
				Euskarazko atalen kasuan, haien izaerari buruzko testua erantsi.	urtero
				Herritarrei harrera euskaraz bermatzeko protokoloa berrikusi eta, behar izanez gero, egokitu eta zabaldu.	2024
		Euskarazko eskaerei (ahoz zein idatziz) euskaraz erantzutea bermatzeko segimendua egin.	2025-2027		
	LAN-HIZKUNTZA	BARNE-HARREMANAK	Euskara lan-hizkuntza izateko bidean, EMAKUNDE barruko harremanak nagusiki izatea eta horretarako estrategiak lantzen segitzea.	EUSLE metodologiaren dinamika berrakibatuz. EUSLE taldeak abian jartzeko (ahozkoa eta idatzizkoa) zerbituz zerbitzuko saioak egin.	2024
		KANPO-HARREMANAK	Kanpo-harremanetan euskararen erabilera areagotzeko proaktiboki jokatzeko. Enpresak kontratatutako pleguetako hizkuntza-baldintzak aztertzea eta haien segimendua egitea.	Administrazioko langileen artean aliatuak bilatu eta horiekin harremanak euskara hutsean egiteko sor daitezkeen aukerak identifikatu. Kanpo-eragileekin proaktibo jokatzeko (identifikagarriak)	urtero
		PRESTAKUNTZA	Trebakuntza orokorraren euskarazko eskaintza areagotzea, langileek euskarazko ikastaroak aukeratzea eta 5 urteko epean langileek jasotzen duten prestakuntzaren % 50 euskaraz izatea gutxienez. Aukera dagoenean 3. eta 4. HE duten langileek prestakuntza euskaraz jasotzea. Emakundeko "barne-prestakuntza" (Emakunderen esku dagoena) euskaraz izatea. IVAPeko prestakuntza euskaraz egitea.	Euskarazko laneko prestakuntzaren eskaintza areagotzeko prestakuntza euskaraz ematen duten zerbitzu-enpresen zerrendak osatu; kontratazio-pleguetan hizkuntza-baldintzak txertatu.	2025
				IVAPeko prestakuntza euskaraz egiteko urratsak planifikatu.	2025
		BALIABIDE INFORMATIKOAK	Langileek dituzten baliabide informatikoak euskaraz erabil dituzten sustatzea. Euskaraz lan egiteko dauden baliabideak eskura jartzea. Tramitagune euskaraz erabiltzea (lengoaia ez-sexista)	Euskarazko bertsioak instalatzeko eta erabiltzeko sustatze-lana egin.	urtero
				Idazlaguni buruzko informazioa eskura jartzea eta haren erabilera sustatu.	2024-2025
				Tramitagune euskaraz erabiltzeko lanketa egin.	2025
		SORTZE-HIZKUNTZA	EMAKUNDEko langileek sortzen dituzten dokumentuak euskaraz sor ditzaten gaitzea eta sustatzea, horretarako estrategia zehatzak lantzea; besteak beste, ekimen pilotuak abian jartzea.	Euskarazko atalen dinamikarekin lotuta, itzultzeko eta euskaraz sortzeko protokoloa aktibatuz, eta betetzeko beharrezko trebakuntza eskaini.	2024
				Itzultzaile neuronalera sartzeko bidea erraztu, eta euskaraz sortzeko interneteko baliabideak eskura jarri.	2024
Zerbitzuetako gehien erabiltzen den dokumentazioa aztertu, eta euskaraz sortzeko gomendioak prestatu.				2025	

7. KUDEAKETA-PLANAK, JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA

Plan Estrategikoa diseinatuta, helburu estrategikoak garatzeko urtez urteko kudeaketa-planak egingo ditugu; izan ere, plan estrategikoan jasotako guztia ezingo baita dena aldi berean eta urte berean egin. Bestalde, kudeaketa-planen garapenaren segimendua ezinbestekoa izango da plan estrategikoaren helburuak betetzen direla ziurtatzeko. Plangintzaldia abiatuta dagoenez, lehen kudeaketa-plana bi urtekoa izango da, 2024-2025, alegia (Plan osoa eta kudeaketa-plana aparteko excel batean jaso ditugu).

Esan bezala, oso garrantzitsua da Planaren etengabeko segimendua eta ebaluazioa egiteko sistema bat zehaztea. Koordinazio-taldeak kudeaketa-planean jasotako neurrien segimendu jarraitua egingo du planaren Excel dokumentuaz baliatuta, eta Erabilera Batzordeak eta Zuzendaritza-taldeak adostutako funtzionamenduaren arabera egingo dute ohiko segimendua. Segimendu horren bidez aurreikusitako ekintzen betetze-maila ezagutuko dugu urtez urte.

Ekintzen betetze-maila modu sinplean jasoko dugu urtero: ekintzak erabat burutu diren, erdizka burutu diren edo burutzeke geratu diren erregistratuz.

Hemen 2024-2025eko kudeaketa-planaren argazkia:

ARDATZA	AZPIARLOA	ESTRATEGIAK/NEURRIAK	ARDURADUNAK	BETETZE-MAILA*	OHARRAK	*BETETZE-MAILA*
KUDEAKETA	KUDEAKETA OROKORRA	Plana etengabe kudeatu Koordinazio-taldean.	KOORDINAZIO-TALDEA			eginda
		2024-2027 behin-behineko Plan Estrategikoa landu eta 2024-2025eko Kudeaketa Plana zehaztu eta gauzatu.	KOORDINAZIO-TALDEA eta ZUZENDARITZA			bidean
		Planaren zirriborroa Euskara Batzordean aztertu eta osatu.	KOORDINAZIO-TALDEA eta EUSKARA-BATZORDEA			egin gabe
		Planak Zuzendaritza-taldean aztertu, osatu, onartu eta kudeatu, eta horretarako funtzionamendua adostu eta sistematizatu.	KOORDINAZIO-TALDEA			
		Euskarazko atalen bideari ekiteko, atal horietako batean proiektu pilotua abian jarri.	KOORDINAZIO-TALDEA eta ZERBITZUBURUAK			
		Hizkuntza-irizpideak Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-irizpide berrietara egokitu.	ELHUYAR			
		Hizkuntza-irizpideak betetzeko zailtasunak identifikatu, zerbitzuz zerbitzu.	KOORDINAZIO-TALDEA eta ZERBITZUBURUAK			
	Planaren segimendua egingo duen Euskara Batzordearen bilerak egin.	KOORDINAZIO-TALDEA eta EUSKARA-BATZORDEA				
	LIDERGOA	Zuzendaritzako ordezkariak erabilera-planaren kudeaketa-egituretan parte hartu, eta zuzendaritza-taldeak planaren segimendu sistematikoa egin.	ZUZENDARITZA			
	LANGILEAK	Langileei planaren berri emateko urtean bi saio egin, urte hasieran eta bukaeran (euskararen egunarekin batera).	KOORDINAZIO-TALDEA			
		Langile berriei euskara-planaren eta euskararen ingurukoen aurkezpena egin.	KOORDINAZIO-TALDEA			
		Langileak motibatzeke jarduerak antolatu.	EUSKARA-BATZORDEA			
		Langileei planaren nondik norakoen berri eman eta haien ekarpenak jasotzeko mekanismoak ezarri.	KOORDINAZIO-TALDEA			
	GAITASUNA	IVAPen eskaintza aztertu eta Euskarazko Ataletan abian jartzeko egokiak izan daitezkeenak identifikatu.	KOORDINAZIO-TALDEA			
		Langileek lana euskaraz egiteko gaitasuna izateko balibideak eskaini.	ELHUYAR			
		Euskarazko ataleko langile eta arduradunentzat beharrezko ekimen, trebakuntza eta balibideak eskaini etengabe.	ZUZENDARITZA			
		Euskara-gaitasuna areagotzeko dinamikak berreskuratu: "Juntadizoak", eta "eusle metodologia", esate baterako.	KOORDINAZIO-TALDEA eta EUSKARA-BATZORDEA			
	Euskaraz-ikasleak lanean euskara erabiltzen hasteko mentoretza edo bidelagun esperientzia pilotua abian jarri eta garatu eta ebaluatu.	ELHUYAR				
	EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	Praktika onak ezagutzea eta EMAKUNDEn estrategia berriak abiatzea.	KOORDINAZIO-TALDEA			
		Web-orrian "euskararen ataria" sortu eta hizkuntza-irizpidez gain, euskara-plana, euskaraz lan egiteko balibideak, eta euskararekin lotutako dokumentu nagusiak zintzilikatu.	KOORDINAZIO-TALDEA			
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	Kontratuetan hizkuntza-klausulen segimendua egiteko azterketa egin eta prozedura osoa euskaraz ere izan dadin ziurtatzeko urratsak garatu.	KOORDINAZIO-TALDEA eta ZERBITZUBURUAK				
	Kontratazio-espedienteak ele bietan egiteko planifikazioa egin eta urratsak egin.	KOORDINAZIO-TALDEA eta ZERBITZUBURUAK				
	Kontratu biki-tietako hizkuntza-klausulak aztertu eta orokortu.	KOORDINAZIO-TALDEA eta ZERBITZUBURUAK				
	Enpresak azpikontratatzeko solaskide euskaldunak eta "azken produktuek" euskaraz eskatu. Eta kanpokoak direnean, gubuzenez azken produktus. Hitzarmenetan ere antzeko baldintzak txertatu.	ZUZENDARITZA				

EREMUA	AZPIARLOA	ESTRATEGIAK/NEURRIAK		BETETZE-MAILA	OHARRAK
ERABILERA	ZERBITZU-HIZKUNTZA	IRUDIA	Hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren segimendua egin.	KOORDINAZIO-TALDEA eta ZERBITZUBURUAK	
		HERRITARREKIKO HARREMANAK	Herritarren aurrean proaktiboago jokatzea; mahaigainekoak jarri("nirekin euskaraz...", baita emailletako sinaduretan ere, mezua edo ahobizi/belarripresta jarrita).	KOORDINAZIO-TALDEA eta EUSKARA-BATZORDEA	
			Euskarazko atalen kasuan, haien izaerari buruzko testua erantsi.	ATAL PILOTUETAKO ZERBITZUBURUAK	
			Herritarrei harrera euskaraz bermatzeko protokoloa berrikusi eta, behar izanez gero, egokitu eta zabaldu.	KOORDINAZIO-TALDEA	
		Euskarazko eskaerei (ahoz zein idatziz) euskaraz erantzutea bermatzeko segimendua egin.	KOORDINAZIO-TALDEA eta ZERBITZUBURUAK		
	LAN-HIZKUNTZA	BARNE-HARREMANAK	EUSLE metodologiaren dinamika berrakibatatu. EUSLE taldeak abian jartzeko (ahozkoa eta idatzizkoa) zerbitzuz zerbitzuko saioak egin.	KOORDINAZIO-TALDEA eta ZERBITZUBURUAK	
		KANPO-HARREMANAK	Administrazioko langileen artean aliatuak bilatu eta horiekin harremanak euskara hutsean egiteko sor daitezkeen aukerak identifikatu. Kanpo-eragileekin proaktibo jokatu (identifikagarriak).	KOORDINAZIO-TALDEA eta ZERBITZUBURUAK	
		PRESTAKUNTZA	Euskarazko laneko prestakuntzaren eskaintza areagotzeko prestakuntza euskaraz ematen duten zerbitzu-enpresen zerrendak osatu; kontratazio-pleguetan hizkuntza-baldintzak txertatu.	KOORDINAZIO-TALDEA eta ZERBITZUBURUAK	
			IVAPeko prestakuntza euskaraz egiteko urratsak planifikatu.	KOORDINAZIO-TALDEA eta ZERBITZUBURUAK	
		BALIABIDE INFORMATIKOAK	Euskarazko bertsioak instalatzeko eta erabiltzeko sustatze-lana egin.	KOORDINAZIO-TALDEA	
			Idazlaguni buruzko informazioa eskura jartzea eta haren erabilera sustatu.	KOORDINAZIO-TALDEA	
			Tramitagune euskaraz erabiltzeko lanketa egin.	KOORDINAZIO-TALDEA	
		SORTZE-HIZKUNTZA	Euskarazko atalen dinamikarekin lotuta, itzultzeko eta euskaraz sortzeko protokoloa aktibatu, eta betetzeko beharrezko trebakuntza eskaini.	KOORDINAZIO-TALDEA	
	Itzultzaile neuronalera sartzeko bidea erraztu, eta euskaraz sortzeko interneteko baliabideak eskura jarri.		KOORDINAZIO-TALDEA		
	Zerbitzuetao gehien erabiltzen den dokumentazioa aztertu, eta euskaraz sortzeko gomendioak prestatu.	KOORDINAZIO-TALDEA			

8. HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

Normalizazio Dekretu berriak hauxe jasotzen du hizkuntza-irizpideei dagokienez:

- Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak bere Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartuko ditu, bere barne antolamenduko arauetara jarraituz. Onartu ondoren, erakundearen web atarian argitaratu beharko dira. Koordinazioa bermatzeko, plangintzaldi bakoitzaren hasieran, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren alorreko eskumena duen sailak Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideen ereduak landu, eta erakundearen eskura jarri du, nahi izanez gero, eredu hori erabil dezaten beren erabilera-irizpideak diseinatzean.
- Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak bere hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak berrikusi eta, beharrezkoa izanez gero, egokitzapenak eta aldaketak egin ahal izango ditu plangintzaldi osoan zehar.
- Irizpideak onartu eta hilabeteko epean, euskal sektore publikoko entitate bakoitzak hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari jakinaraziko dio hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onartu dituela.
- Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak bere hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideen jarraipen sistematikoa egingo du, eta haien betetze-maila aztertuko, bere planifikazioan horretarako ezartzen dituen bitartekoen bidez.

Emakundek 2018an landutako irizpideak ditu indarrean, baina plangintzaldi berriari begira, eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntzak eskura jarritako Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak (HOEI) aztertuta, egungo irizpide batzuk egokitzeko beharra identifikatu da. Edonola ere, egokitzeko lehentasunezkoak jo diren duten hizkuntza-irizpideak hauek dira:

a. Euskararen kudeaketa orokorra

EAEko Sektore Publikoan, herritarren hizkuntza-eskubideak zaindu eta bete daitezzen, hizkuntza ofizialen kudeaketa erakundearen kudeaketa-sistema orokorraren barruan txertatuta egon beharko da. Hau da, hizkuntza ofizialen erabilera kudeaketa erakundearen hartutako erabaki estrategikoa da, eta bere erronken artean dago euskararen erabilera sustatzea hizkuntza bien arteko erabilera-berdintasuna lortze aldera. Horretara bideratu du bere plan estrategikoa eta helburu horrekin lerrokatu ditu hizkuntza-irizpide hauek.

Hizkuntza ofizialak kudeatzeko egitura eta haren betekizunak

Helburu hori lortzeko, hau da, euskararen erabilera kudeaketa lan-esparru guztietan modu sistematikoan txertatzeko, sail eta erakunde bakoitzak erabaki beharko du zein den egitura-sistema egokiena, bere egoera linguistikoa eta ezaugarriak kontuan hartuta. Nolanahi ere, sistema egituratu horrek honako zeregin hauek izango ditu, besteak beste, erabilera planak diseinatzea eta onartzea, ekintzen proposamenak lantzea, planak kudeaketa eta horiei jarraipen sistematikoa egitea.

Esan den bezala, hizkuntza-egoeratik, eta Eusko Jaurlaritzako Sektore Publikoko sail eta erakundearen egoera, tamaina eta ezaugarrietatik ez dago sistema egituratu hori modu bakarrean ulertzerik; hau da, erakunde bakoitzak bere beharretara egokitu beharko du. Hori bai, sistema horrek, gutxienez, lau ezaugarri hauek izatea komeni da:

- Langile zein arduradunek (politikoak zein teknikoak) osatuta egotea.
- Zeharkako izaera izatea.

- Erabakitzeko ahalmena edukitzea.
- Funtzionamendu malgua eta lanerako eraginkorra izatea.

Egitura bakoitzak jarraipen sistematikoa egingo die bai erabilera planari, bai hizkuntza-irizpide hauei, eta ikusitako emaitzen arabera helburu berriak ezarri, planteamendua aldatu, edo mekanismoak egokituko ditu. Etengabeko hobekuntza lortzera bideratuta dago, beraz, jarraipen sistematikoa.

b. Lidergoa

Liderren jarrera eta egitekoa

EAEko Sektore Publikoko arduradun politikoei gidaritzaren eman behar dute euren sailetako hizkuntza-politikan.

Zuzendaritza-batzordeek hizkuntzen kudeaketa sustatuko dute (normalizazio teknikariek batera), eta zerbitziburuen ardura izango da kudeaketa hori gauzatzea eta lan-kideen artean zabaltzea.

Erakundeko arduradun politikoei —nahiz haiek izendatutako pertsonak— eta arduradun teknikoek era proaktiboan hartuko dute parte erabilera planaren diseinu, garapen eta jarraipenean. Horretarako, funtsezkoa da hauei erreparatzea:

- Erakundearen ordezkari gisa euskararekiko jarrera aitzindaria erakutsiko dute.
- Lidergoa agertuko dute hizkuntzen kudeaketari buruz hartutako erabakietan.
- Euskararekiko erakundearen xedea eta ikuskera (bisioa /estrategia...) zein diren jakin eta onartuko dute.
- Estrategia gauzatzen eta helburuak lortzen inplikatuko dira, eta horretarako foroetan, bileretan... aktiboki hartuko dute parte.
- Euren kargupeko pertsonak euskararen normalizazioan inplikatu dituzte eta sustapen-lana egingo dute.
- Erabilera planean zehaztutako helburuak lortzeko behar besteko tresnak eta baliabideak jarriko dituzte.
- Erakundearen hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egingo dute.
- Erabilera planean zehaztutakoa bete ezean, neurri zuzentzaileak martxan jarriko dituzte.

c. Hizkuntza-klausulak

Kontratu publikoak

EAEko Sektore Publikoak egiten dituen kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, batetik, herritarrei bermatzeko erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak eta, bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza- ofizialtasunaren erregu-

lazioa betetzeko.

Administrazio-klausula partikularrei eta baldintza teknikoei buruzko agiriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira.

EAEko Sektore Publikoak hizkuntza bien ofizialtasunaren araubidea betearaziko du kontratu publikoetan. Beraz, kasuan-kasuan kontratuaren helburua zein den, halako hizkuntza-betekizunak ezarriko ditu administrazio-klausula partikularren agirietan.

EAEko Sektore Publikoak bermatuko du kontratuaren xedek betetzen duela bere izaerarengatik eta zerbitzuaren titularra den erakundearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria.

Hizkuntza bien ofizialtasunari lotutako errekerimenduetan, herritarrei arreta ematea eskatzen duten kontratuetan edo zerbitzu bat ematea helburu duten kontratuetan, honako hau bermatu beharko da kontratuaren preskripzio teknikoetan:

- a) Proporzionaltasun-printzipioa bermatuko da, kasu bakoitzaren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.
- b) Kontratuaren bidez bete behar diren eginkizunei lotuta egongo dira.
- c) Enpresak bere baliabideen edo besteren baliabideen bitartez egiaztatu ahalko ditu.

Kontratua gauzatzeko baldintzetan, erakunde kontratatzailearen eta esleipendunaren arteko harremanetan erabiliko den hizkuntzari buruzko alderdiak sartu ahal izango dira.

Herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten kontratuetan, hauxe bermatuko da:

- a) Enpresa kontratistak hizkuntza-araudia eta kontratuaren agirietan adierazitako hizkuntza-klausulak, halakorik balego, bete beharko ditu prestazioa ematerakoan. Hizkuntza-baldintzei dagokienez, enpresak egiaztatu beharko du prestazioa eman ahal duela prestazioaren administrazio titularrari exijitu ahal zaizkion baldintza beretan. Zehazki, herritarren hizkuntza-eskubideak eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetze aldera, prestazioaren emaitza hizkuntza ofizial bietan emateko gai izan behar du, hala jasota badago kontratuko agirietan.
- b) Zerbitzua ematen duenean, kontratista saiaturik da herritarrekiko ahozko harremanak euskaraz izaten. Horretarako, enpresa kontratistan zerbitzua ematen ari den pertsonak euskaraz ekingo dio elkarrizketari, eta, ondoren, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraituko du. Zerbitzuaren era- biltzaileak zer hizkuntza aukeratu duen, hizkuntza horretan idatziko ditu enpresa kontratistak zerbitzua emateko behar diren ziurtagiriak, txartelak, oharak eta beste idazki batzuk.

Hizkuntza-baldintzen betetze-mailaren jarraipena egitea kontratazio-organoari dagokio, hark izendatutako kontratuaren arduradunaren figuraren bitartez. Hizkuntza-baldintzak urratzen badira, kontratuak ez betetzeagatik araudiak dioena aplikatuko da.

EAEko Sektore Publikoak erabaki ahalko du hirugarrenei eskatzen dizkien azterlanak, proiektuak eta antzeko lanak euskaraz, behintzat, idatzita egotea, salbu eta, xedea dela eta, nahitaez gaztelaniaz soilik idatzi behar direnean. Eskakizun hori jasota egon beharko da onartzen diren administrazio-kontratuen baldintza-agirietan.

Hizkuntza-klausulen betetze-mailaren jarraipen egokirako, komenigarria da erakunde bakoitzak jarraipena egiteko bere ezaugarri eta egoerari egokitutako sistematika bat ezartzea.

d. Irudia

Agerraldi instituzionalak

EAEko Sektore Publikoak antolatzen dituen kanpo-ekitaldietan sistematikoki eta diseinu-fasetik hartuko da kontuan hizkuntzen kudeaketa. Euskararen erabilera ekitaldiz ekitaldi zehaztuko da, ekitaldiaren izaeraren eta hartzaileen hizkuntza-ezaugarrien arabera.

Oro har, ekitaldien hartzaileak euskaldunak direnean edo euren jarduera euskaraz gauzatzen dela jakina den kasuetan, ekitaldi horiek euskaraz egingo dira. Beste guztietan, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarari lehentasuna emanez, eta hori ezinezkoa denean, euskararen gutxieneko erabilera bermatuz.

Paperezko euskarrietan egiten diren komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira, eta horietan euskarari lehentasuna emango zaio: gonbidapenak, izena emateko orriak, programak, gai-zerrendak, aurkezpenak...

Diskurtsoetan erabiltzen den hizkuntza entzuleen hizkuntza-errealitatearen eta hizlarien hizkuntza-gaitasunaren arabera izango da, eta, beraz, bien arteko oreka bilatu beharko da beti.

Aurkezle edo moderatzaileak euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko dituzten hizlariak, eta euskarari lehentasuna emango dio.

Ekitaldietan, zerbaiti buruzko gogoetak edo ekarpenak egiteko lantaldeak sortu behar badira, erakunde antolatzaileak sustatu egingo du euskal hiztunek euskaraz parte hartzeko aukera izatea.

Ekitaldiaren edo jardueraren izaerak aldibereko itzulpena eskatzen duenean, alde zuzenetik ondo zehaztuko da jarduna zein hizkuntzatarantz itzuliko den, eta interpretazio lana egiteko behar diren baliabideez hornitutako areto bat prestatuko da. Era horretako aretoak lehentasunez gordeko dira aldibereko itzulpena behar duten ekitaldiak lehenetsiz.

Ekitaldia kanpoko enpresa batek antolatu behar duenean, kontrataziorako baldintza-pleguetan aurretik aipatutako irizpide horiek jasoko dira.

Kontratazioa egiterakoan, bertaraturako jendearekin harreman zuzena duten langileek (aretokoak, harrerakoak eta zerbitzuetaoak) beren lana euskaraz ere egiteko gaitasuna dutela bermatuko da.

e. Herritarrekiko harremanak

Herritarrekiko harremana, ahoz

Telefonoz edo aurrez aurre herritarrari zerbitzua ematen zaionean, euskarazko arreta bermatuko da. EAEko Sektore Publikoko langileek euskaraz artatuko dute herritarra, eta ondoren, herritarrak aukeratutako hizkuntza ofizialean jarraituko dute, herritarrak hizkuntza ofizialak erabiltzeko daukan eskubidea bermatuz.

Herritarrak euskaraz hitz egiten badiotuz euskaraz ez dakien langile bati, edota euskaraz jardun nahi duela adierazten badiotuz, langile horrek bere erabilera planak zehaztutako protokoloa jarraituko du, eta lankide elebidun baten laguntza eskatuko du, herritarraren eskubidea bermatze aldera.

Langileek ez diote inoiz eskatuko herritarrari hizkuntza batean ala bestean jarduteko. Aitzitik, langileek zerbitzua herritarrak hautatutako hizkuntzan bideratuko du beti. Horretarako, EAEko Sektore

Publikoak bermatu behar du herritarrekiko harremanetan jarduten duten langileen artean euskarazko gaitasuna dutenak badirela eta herritarrari arreta euskaraz egiten zaiola.

EAEko Sektore Publikoko langileen hizkuntza-erabilera garrantzitsua da herritarrentzat, erakundearen beraren funtzionamenduaren isla baitira. Erakundeetako langileen arteko komunikazioetan euskara erabiltzeak prestigioa ematen dio hizkuntzari. Ondorioz, EAEko Sektore Publikoak jendaurreko lanpostuetan diharduten langileen arteko euskarazko komunikazioa sustatuko du.

Hartzaile jakinik gabeko ahozko mezuak (entzungailu automatikoz, telefono bidez edota bozgorailuz eta abarrez emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera horretan.

Herritarrei modu proaktiboan eskainiko zaie bilerak edota elkarrizketak bi hizkuntza ofizialetan egiteko aukera, euskaraz ere bai, baina herritarrak hautatutako hizkuntza ofizialean gauzatuko dira beti.

Erakundeetan bisita gidatuak egiten badira, euskarazko zerbitzua bermatuko da.

Hizkuntza eskubideen urraketa gertatuz gero, herritarrari kexa jartzeko mekanismoa jakinaraziko zaio. Hartara, aipatu egingo zaio **Elebidera** jo dezakeela, hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzura.

Herritarrekiko harremana, idatziz

EAEko Sektore Publikoa dokumentu igorlea denean, lehenengo komunikazioa ele bietan egingo da.

Hori horrela izanda, EAEko Sektore Publikoko erakundeek euskara hutsez igorriko dituzte idatziak baldin eta:

- Herritarrak aldeztu aurretik jakinarazi badu euskarazko komunikazioa lehenesten duela.
- Herritarrak euskara erabili badu Administrazioarekin harremanetan jartzeko.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko herritarrei bidalitako komunikazioak euskaraz eta kasuan kasuko hizkuntza ofizialean egingo dira (gaztelania, frantsesa, ingelesa, eta abar).

EAEko Sektore Publikoak kontuan hartuko ditu hartzaileen ezaugarri linguistikoak, eta horien arabera moldatuko ditu komunikazio orokorren hizkera, estiloa eta formatua, ahal denean. Helburua herritarrekin komunikatzea da; hori dela-eta, komunikazio ulergarriak zabaldu behar dira.

Komunikazio telematikoari dagokionez, herritarrak nahi duen hizkuntza erabiltzeko aukera izatea bermatuko da (eskaerak, izen- emateak, hitzorduak, kexak, dirulaguntzak...). EAEko Sektore Publikoko organoek bermatuko dute gobernuak aplikazioek eskaintzen dituzten dokumentu estandarizatuak interesdunak aukeratutako hizkuntzan edo bi hizkuntza ofizialetan lor daitezkeela.

EAEko Sektore Publikoak dokumentua jaso eta erantzun behar duenean, honela jokatu du:

- **Harremana euskaraz nahi duenari, edota dokumentuak euskaraz igorri dituenari, euskaraz erantzungo zaio.**
- **Ele bietan jasotako komunikazioei, ele bietan erantzungo zaie.**

- **Gaztelaniaz jasotako komunikazioei gaztelaniaz edo ele bietan erantzungo zaie.**
- **Beti eskainiko da etorkizunean euskaraz komunikatzeko aukera.**

f. Kanpo-harremanak

EAEko Sektore Publikoak euskararen erabilera gero eta handiagoa izatea sustatuko du Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden gainerako administrazio publikoekiko harremanetan eta euskara hizkuntza ofizial gisa duten lurraldeetan dauden edo euskarak ondore juridikoak dituen gainerako eremuetan kokatuta dauden administrazio publikoekiko harremanetan.

Euskal Sektore Publikoarekiko harremanak ahoz

Ahozko komunikazioei dagokienez, EAEko Sektore Publikoko langileek lehen hitza euskaraz egingo dute beti, eta solaskideak euskaraz baldin badauki euskaraz jarraituko da elkarrizketa.

Beste administrazio batek komunikazioari hasiera ematen badio, EAEko Sektore Publikoko langileek hizkuntza horretan erantzungo dute: euskaraz bada, euskaraz; eta gaztelaniaz bada, gaztelaniaz.

Euskal Sektore Publikoarekiko harremanak idatziz

- EAEko Sektore Publikoko erakundeen artean euskarazko komunikazioak sustatuko dira. Euskaraz egindako komunikazio horiek balio juridiko osoa dute, eta erakunde hartzaileak ezingo dio eskatu erakunde edo atal igorleari jatorrizko dokumentuaren itzulpena. Itzultzekotan, erakunde hartzailearen ardura izango da itzulpen hori.
- EAEko Sektore Publikoak Euskal Autonomia Erkidegoan eta euskara hizkuntza ofiziala den lurraldeetan kokatutako sektore publikoko beste erakunde batzuei zuzendutako dokumentuak edo haien kopiak, edo baita dokumentu horien erabilerak ondorio juridikoak dituen lurraldeetara igorritakoak ere, gutxienez, euskaraz bidaliko dira.
- **Euskaraz egin nahi dutela adierazi duten sektore publikoko erakundeei bidalitako dokumentuak eta kopiak euskaraz egingo dira.**
- **Era berean, euskaraz idatzitako idazki edo errekerimendu bati emandako erantzunak euskaraz egingo dira.**
- **Idazkia bi hizkuntzetan edo gaztelaniaz jaso bada, hizkuntza ofizial bietan edo batean erantzun ahal izango da.**
- EAEn kokatutako Estatuko Administrazio ezberdinekiko komunikazioetan (Zibila, Militarra eta Justizia) hizkuntza-irizpide berak jarraituko dira.
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko administrazioei bidalitako komunikazioak kasuan kasuko hizkuntza ofizialean egingo dira (gaztelania, frantsesa, ingelesa...), eta baita euskaraz ere, gure hizkuntza propioaren presentzia agerian uzteko.

9. PLANAREN KOMUNIKAZIOA

Komunikazioa arrakastarako gakoa da horrelako egitasmoetan. Komunikazioa bermatzea beharrezkoa da, besteak beste, prozesua abiatu aurretik, prozesuak irauten duen bitartean eta prozesua amaitutakoan.

Euskara Plana guztiontzako plana da eta guztiok dinamikaren parte sentitzeko komunikazio eraginkorrari eutsi behar diogu. Planaren garapenean ere, Emakunden behar besteko garrantzia eman behar zaio komunikazioari, eta, aldiro, bideratzen diren ekintzen inguruko informazioa zabaltzeko moduak aurreikusi eta planifikatu behar dira, hala nola:

- Emakundeko kideentzako aurkezpen orokorrak.
- Zerbitzuko aurkezpenak eta lansaiok.
- Baliabide digital bidezko komunikazioa.

10.ERANSKINAK

LANPOSTU ZERRENDA:

LANPOSTUA	LANPOSTUAREN HE	DERRIGORTASUN DATA	LAN-HARREMANA	LANGILEAREN HE	EGIAZTUTAKO DATA
3145-18	3	2014/12/31	LAB.	2	2016/06/24
510060-173	3	2007/04/30	INT.	3	2007/02/13
510060-73	4	2006/03/31	INT.	4	2004/02/23
*510062-12	4	1994/03/31	INT.	4	2021/06/17
510062-12	4	1994/03/31	FUNC.	4	1995/11/16
510062-25	4	31/10/2013	INT.	4	2012/02/08
510221-10	3	2014/12/31	INT.	3	2017/06/23
510670-3	4	2017/12/31	INT.	1	2017/07/30
510730-1	3	1999/12/31	INT.	3	2008/06/25
510730-18	3	2009/06/31	INT.	3	30/12/1998
*510730-2	3	2017/12/31	INT.	3	2022/04/21
510730-2	3	2017/12/31	INT.	1	2013/01/16
510730-21	3	2013/10/31	INT.	3	2009/05/22
510730-22	3	2015/03/31	INT.	3	2004/12/17
510730-23	3	2015/03/31	INT.	3	2009/06/26
510730-3	3	2014/12/31	INT.	3	2008/02/29
*510730-4	3	2014/12/31	INT.	3	2020/02/05
510730-4	3	2014/12/31	FUNC.	1	2016/06/15
510730-5	3	2007/04/30	INT.	3	2012/12/21
510730-6	3	2017/04/30	INT.	3	2013/03/15
510730-7	3	2007/04/30	INT.	3	2014/02/04
510731-1	4	1993/03/31	INT.	4	2010/06/24
510731-2	3	2013/10/31	INT.	3	2008/12/12
510731-3	3	2007/04/30	FUNC.	4	1995/12/20
510732-1	3	1994/10/31	INT.	3	2012/01/13
510890-14	3	2006/03/31	FUNC.	4	2005/04/18
511760-19	3	1992/03/31	INT.	4	1998/03/31
520010-114	2	2005/12/31	FUNC.	2	2006/09/21
520010-115	2	2014/12/31	FUNC.	-	-
520020-231	3	1991/03/31	INT.	3	2001/05/23
520020-232	2	2017/12/31	INT.	2	2011/04/26
520020-233	2	1994/10/31	INT.	2	2020/12/18
520020-234	2	1990/03/31	INT.	2	2018/06/15
520020-235	2	2000/03/31	INT.	1	2018/07/30
520040-179	3	2017/12/31	FUNC.	2	2000/05/02
520090-45	3	2007/04/30	FUNC.	3	2012/09/19
530020-14	1	2014/12/31	FUNC.	1	2000/08/01